

Burua Aske

AGIFESEN KONTAKIZUN LABURREN VII. LEHIAKETA

Parte-hartzea

- **18 urtetik gorako pertsonak** parte hartu ahal izango dute, euren nazionalitatea edota bizilekutzat duten lurraldea edozein direlarik ere.
- Adin txikikoek ere guraso edo tutoreak sinatutako baimenarekin parte hartu ahal izango dute. Baimen agiria dokumentuaren amaieran dago eskuragarri.

Gaia

- Idazlanak **Buru Osasunaren ingurukoak** izan behar dute.
- **Estigmari gaitzen eta aurreiritziak ezabatzen laguntzen duten lanak** bereziki baloratuko dira.
- Lanen **sormena, originaltasuna eta kalitate literarioa** kontuan hartuko dira.

Lanen aurkezpena

- Pertsona bakoitzak **ezin izango ditu 5 idazlan baino gehiago** aurkeztu.
- Kontakizunak **euskaraz zein gaztelaniaz** aurkeztu ahal izango dira.
- **Ez da onartuko aurrez saritua izan den edota beste lehiaketaren batean epaireden zain dagoen lanik, eta argitaragabeko idazlanak** izan beharko dute. Ezin izango dira, halaber, argitaletxeren batekin konpromisoa daukaten lanak aurkeztu.
- Ez da onartuko egileak egin ez duen edo egilearen jabetzakoa ez den idazlanik.
- **Parte-hartzaileak** AGIFESen kontakizun lehiaketara aurkeztutako **lan guztien egile eskubideen jabe bakarra dela adierazten eta bermatzen du**. Gainera, aurkeztutako lanek hirugarrengoen eskubiderik ez izatearen arduradun da.
- Idazlanak **ordenagailuz idatzita** aurkeztu behar dira. **Gehienez 5 orrialdeko luzera, espazio bikoitzean idatzita, 12 puntuko tamainako Times New Roman** tipografiarekin.
- Idazlanak **info@agifes.org** helbidera bidali behar dira eta honako informazioa erantsi behar da beste dokumentu batean: Izena, Abizenak, NAN zenbakia edo pasaportea, e-maila eta telefono zenbakia.

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina www.agifes.org webgunean

Lanak aurkezteko epea

- Lanak aurkezteko epea **2018ko abenduaren 16an**, igandea, amaituko da.
- **Agifesek lanak gordetzeko eskubidea** dauka.

Lan irabazleen aukeraketa

- **Agifesen Sentsibilizazio Batzordeak hautatuko ditu hiru lan irabazleak.** Batzordearen erabakia apezina izango da.
- Aurkeztutako lanek adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte, sariren bat edo guztiak hutsik uzteko erabakia har dezake Agifesen Sentsibilizazio Batzordeak.
- **Pertsona berak ezingo ditu bi sari edo gehiago jaso**, nahiz eta lan bat baino gehiago aurkeztu.
- Saritutakoen izenak eta lanak www.agifes.org webgunean argitara emango dira. Gainera, irabazleei e-mail edota telefono bidez jakinaraziko zaie irabazi dutela.

Aurkeztutako lanak argitaratzea

- **Agifesek ez ditu lehiaketara aurkeztutako idazlanak helburu komertzialekin erabiliko**, ezta horiek egi-leen baimenik gabe hirugarrenei banatuko ere.
- Lehiaketara aurkeztutako idazlanak, beti ere egilearen izena aipatuz, elkartearen jabetzakoak diren komunikazio kanaletan (webgunea, sare sozialak eta elkarteko aldizkaria) mugarik gabe argitaratzeko edota erreproduzitzeko eskubidea gordetzen du Agifesek.

Onespena

- Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

Sariak

- Honako sariak banatuko dira:
 - **1. saria:** 400 euro eta diploma
 - **2. saria:** 200 euro eta diploma
 - **3. saria:** 100 euro eta diploma
 - **Euskarazko Idazlan Onenari Saria**, hizkuntza honetan idatzitako idazlanak bultzatzea helburu duena. Irabazleak 100 euro eta diploma jasoko ditu (*Sari hau banatuko dugu, soilik, hiru irabazleen artean euskarazko idazlanik ez badago).

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina www.agifes.org webgunean

GURASOEN EDO TUTOREAREN BAIMENA

_____ jauna/andreak, _____ NAN zenbakidunak,
_____-ren ama, aita edo tutorea dela baieztatzen du eta
_____-ri baimena ematen dio 'Burua Aske' kontakizun la-
burren lehiaketan parte hartzeko, lehiaketa honetarako zehaztutako oinarriak onartuz.

“Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, 'Burua Aske' lehiaketako partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela inola ere hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Zure datuak ikusteko, zuzentzeko, edota baliogabetzeko aukera duzu Legearen arabera, eta horretarako gurekin jar zaitezke kontaktuan info@agifes.org e-mailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea. 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bat bidali behar duzu idatziarekin batera)”.

Data:

Sinadura: